Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

424

EBAZPENA, 2010eko abenduaren 23koa, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena, Merkataritza Establezimenduak Modernizatzearen aldeko 2010eko Programara bideraturako diru-baliabideak handituko direla jakinarazteko dena.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2010eko maiatzaren 12ko Aginduaren bidez, Merkataritzako Establezimenduak Modernizatzeko Programa arautu zen.

Agindu horretako 8. artikuluan ezarritakoarekin bat, Merkataritza eta Turismoko sailburuordeak 2010eko maiatzaren 13ko Ebazpena eman zuen; hartara, 2010eko ekainaren 11ko EHAAn argitaratu zen 2010eko ekitaldiko laguntza-deialdia, Merkataritza Establezimenduak Modernizatzearen aldeko Programarena.

2010eko azaroaren 17ko Ebazpenaren bidez, hasierako kredituari 700.000 euro gehituko zitzaizkiola jakinarazi zen.

Hala ere, gehikuntza hori ez da nahikoa, Merkataritza Establezimenduak Modernizatzearen aldeko 2010eko ekitaldian izandako eskabide guztiei aurre egiteko. Hortaz, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren aurrekontuan diru-baliabide erabilgarriak egon badaudela aintzat hartuta, programa horretan 2010erako ezarritako laguntzetarako funtsak gehitu egin behar dira.

Horregatik, deialdia egin zuen ebazpenaren 1. artikuluan ezarritako ahalmenaz baliatuta, eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen irailaren 22ko 514/2009 Dekretuan xedatutakoaren arabera, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Jakitera ematen da 355.000 eurokoa beste gehikuntza bat egin dela Merkataritza Establezimenduak Modernizatzearen aldeko Programaren 2010eko deialdia egin zuen ebazpenean ezarritako aurrekontuan, betiere, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2010eko maiatzaren 12ko Aginduarekin bat.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

424

RESOLUCIÓN de 23 de diciembre de 2010, de la Viceconsejera de Comercio y Turismo, por la que se hace público el aumento de recursos destinados al programa de apoyo a la Modernización de Establecimientos Comerciales para el ejercicio 2010.

La Orden de 12 de mayo de 2010, del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, regula el programa de apoyo a la Modernización de Establecimientos Comerciales.

De conformidad con lo establecido en el artículo 8 de la citada Orden, la Viceconsejera de Comercio y Turismo dictó Resolución de 13 de mayo de 2010, publicando la convocatoria en el BOPV el 11 de junio de 2010, para el ejercicio 2010, de concesión de ayudas establecidas en el programa de apoyo a la Modernización de Establecimientos Comerciales.

Se dicta resolución de 17 de noviembre de 2010, para publicar la ampliación del crédito inicial por un importe de 700.000 euros.

Resultando insuficiente esta ampliación para responder al total de las ayudas solicitadas dentro del Programa de apoyo a la Modernización de Establecimientos Comerciales para el ejercicio 2010, y existiendo disponibilidad presupuestaria del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, procede realizar un incremento de los fondos destinados a las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2010.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 1 de la resolución de convocatoria, en relación con lo dispuesto en el Decreto 514/2009, de 22 de septiembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Innovación, Comercio y Turismo.

RESUELVO:

Primero.– Hacer público un nuevo incremento del presupuesto previsto en la resolución de convocatoria de 2010, en 355.000 euros, con destino al programa de apoyo a la Modernización de Establecimientos Comerciales conforme a la Orden de 12 de mayo de 2010, del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo.

Segundo.– Ordenar la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu dakioke Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 23a.

Merkataritza eta Turismoko sailburuordea.
MARÍA PILAR ZORRILLA CALVO.

Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de diciembre de 2010.

La Viceconsejera de Comercio y Turismo,
MARÍA PILAR ZORRILLA CALVO.